

EAEKO KULTURA-ARLOKO ENPRESEN, ENPLEGUAREN ETA LAN-MERKATUAREN ANALISIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO


KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



**Kulturaren
Euskal Behatokia**
Observatorio Vasco
de la Cultura

EAE_{KO} KULTURA-ARLOKO ENPRESEN, ENPLEGUAREN ETA LAN-MERKATUAREN ANALISIA



**Kulturaren
Euskal Behatokia**
Observatorio Vasco
de la Cultura



Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jauriaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac>


Argitaraldia: 1.a, 2018ko iraila

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

Internet: www.euskadi.eus


Argitaratzailea:
Eusko Jauriaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Diseinua eta maketazioa:
Miren Unzurrunzaga Schmitz



AURKIBIDEA

Aurkezpena	4
1. KSlen sektorea EAEn	5
2. Enpresa-ehunaren joerak	6
3. KSlen hedapena	9
4. Konparazioa beste autonomia-erkidego batzuekin	15
5. EAEko kultura-arloko lan-merkatua	17




Aurkezpena

Kulturaren Euskal Behatokiak (OVC-KEB) EAEko kultura arloko enpresei eta enpleguari buruzko bosgarren txostena aurkeztu du, 2010ean hasitako analisi sortari jarraipena emanda. Azterlan horren berezitasuna da berau egiteko kanpoko iturri hauetara jo dutela: Eustat, Lanbide eta EIN. Era horretan, beste erakunde batzuek sortzen duten informazioaren balioa nabarmendu du, eta bere estatistika sektorialek eskaintzen duten ikuspegia zabaldu.

Kulturakotzat eta sorkuntzakotzat jotzen diren jarduerak eta lanbideak aldeztu aurretik aukeratuta, EAEko kultura- eta sormen-industriaren (KSI) sektoreko enpresa-sarearen eta lan-merkatuaren ustiapen espezifikoak egin dira. Datuak Eustaten eta Lanbideren direktorioetakoak eta erregistroetakoak dira. Gainera, beste autonomia-erkidego batzuekiko alderaketak egiten dira Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministeriotik hartu diren datuak erabiliz, BAiren ustiapen espezifiko baten bitartez.

Illo horretatik, nabarmentzekoa da datu berriak sartu direla enpresa-egiturari eta enpleguari dagokienez. KSlak ikuspegi zabalago batetik aztertu ahal izateko, aintzat hartu dira jarduera ekonomiko berriak Eustateko direktorioetan eta erregistroetan. Horrela, barne hartu dira kultura-ikerkuntzarekin lotura duten jarduera kultural berriak, eta modarekin eta hizkuntzaren industriarekin zerikusia dutenak. Hori dela eta, KSlen arlo berriak jasotzen dira 2015eko eta 2016ko datuekin, eta aldi berean aurretiaz aztertu ziren arloak berrikusten dira EAEko kultura-enpresen ehunaren bilakaera irudikatu ahal izateko.




1. KSIEN SEKTOREA EAEN

Sormen-arloko enpresak eta kultura-arloko enpleguak nabarmentzen dira


2016an, KSlen sektoreak 15.437 enpresa hartzen ditu barnean; horien artean % 40,7 kultura-arlokoak dira (6.286 enpresa guztira), eta % 59,3 sormen-arlokoak (9.151 enpresa guztira).

1. irudia. KSlen sektoreko enpresak. 2016




2016an sormen-arloko enpresen zenbatekoa kultura-arlokoena baino handiagoa bada ere, enplegatzen dituzten pertsonen kopurua handiagoa da kultura-arlokoetan. 2. irudian ikus daitekeenez, KSlen sektoreak 45.365 pertsona enplegatzen ditu 2016an. Horien artean, 25.263 kultura-arlokoetan ari dira, eta 20.102 sormen-arlokoetan.

2. irudia. KSlen sektoreko enpleguak. 2016



KSlen sektorean enplegua dutenen % 55,7 ari dira jarduketa kulturaletan, eta % 44,3 ari dira sormen-jarduketatan. Bide batez, kultura-arloko enpresek 4,0 pertsona enplegatzen dituzte batez beste enpresa bakoitzeko, KSlen sektoreak bere osotasunean duen batez bestekoa baino puntu bat gehiago (2,9), alegia; sormen-arlokoak, aldiz, batez besteko horren azpitik geratzen dira, 2,2 pertsona enplegatzen baitituzte enpresa bakoitzeko, batik bat sektore horietako batzuetan ugariak direlako autonomoak.

Jarraian, KSlen sektorearen azterketa zehatzagoa egingo dugu enpresa-ehunaren joerak behatuz sektorearen bilakaeraren ikuspuntutik eta haren hedapenarekin ikuspegitik, kultura- zein sormen-jarduketa berriak aintzat hartuz. Sektoreko enpresa-ehuna eta enpresa kopurua ez ezik, EAeko lan-merkatua ere aztertzen da, eta alderaketa bat egiten da hainbat autonomia-erkidegorekin, eskuratutako datuak kanpo-ikuspegiarekin eta perspektibarekin aztertzeko.




2. ENPRESA-EHUNAREN JOERAK¹

Kultura-sektorea berrindartzen ari da

2016an kultura-sektorea handitu egin da % 6,3 (335 enpresa gehiago), aztertutako azken aldiarekin (2013-2014) alderatuta. Datuen bilakaera begiratzuz gero, ikus daiteke 2009 eta 2014 artean kultura-enpresen ehuna % 16,2 txikiagotu zela, 2009an 6.350 izatetik 2014an 5.322 izatera igaroz. 2014an inflexio-puntu bat izan zuen EAEko kultura-enpresen ehunak, beherakada moteldu egin baitzen eta sektoreak joera-aldaketari ekin baitzion. Enpresa-kopurua % 4,6 hazi zen 2014 eta 2015 artean, eta % 1,6 ondorengo urtean.

Jarduera ekonomikoen multzoan duen adierazgarritasunari dagokionez, kultura-sektoreak % 3 eta % 4 artekoa izaten jarraitzen du, eta berreskuratu egin ditu 2009ko eta 2010eko mailak (% 3,7 2016an).


3. irudia. Kultura-enpresen eta enpresa guztien kopuruen bilakaera. 2009-2016



Iturria: Jarduera Ekonomikoen Direktorioa, EUSTAT.


4. irudia. Kultura-enpresen kopuruaren eta enpresa guztien gaineko ehunekoaren bilakaera.

2009-2016



Iturria: Jarduera Ekonomikoen Direktorioa, EUSTAT.

¹ Alderatzeko, hasierako analisisian JESNak soilik hartzen dira aintzat.



5. irudia. Kultura-arloko enpresen oinarrizko adierazleen bilakaera. 2010-2016

	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
EAEko enpresen kopurua guztira (sektore oro)	167.270	161.658	161.626	157.405	155.306	155.121	154.687
Kultura-arloko enpresen kopurua guztira	6.089	6.060	5.713	5.402	5.322	5.569	5.567
Kultura-arloko enpresen ehuneko EAEko enpresa guztiekiko	% 3,6	% 3,7	% 3,5	% 3,4	% 3,4	% 3,6	% 3,7
Kultura-arloko enpresen ratioa 100.000 biztanleko	279,5	277,4	260,5	246,8	242,8	254,4	258,4
Kultura- eta sormen-arloko establezimendu/enpresa ratioa	1,11	1,05	1,05	1,06	1,06	1,04	1,04


Iturria: Jarduera Ekonomikoen Direktorioa, EUSTAT.

Hiru lurraldeetan ugaritu dira enpresak


Kultura-enpresen bilakaera positiboa izan da azken aldian. Hiru lurraldeetan handitu da enpresen ehuneko azken bi urte hauetan.

2014tik 2016ra bitartean, Araban % 12,2ko hazkundera izan da, Gipuzkoan % 7,2koa eta Bizkaian % 4,4koa. Ordura arte, Bizkaiak kultura-enpresen kopuruari eutsi egiten zion, baina Gipuzkoak eta, batez ere, Arabak, ehuneko 3 eta 6ko beherakadak jasan zituzten, hurrenez hurren. Kultura-enpresen hazkundera ahalbidetu du bi lurralde horietako zifrak hobetzea, 2013-2014ko beheraldi nabarmenaren aurreko datuetara itzultzeko adina kasik.

6. irudia. Kultura-enpresen kopuruaren bilakaera Lurralde Historikoaren arabera. 2010-2016



Iturria: Jarduera Ekonomikoen Direktorioa, EUSTAT.




Kultura- eta sormen-industrien joera positiboa

Azter-eremua hedatu eta sektoreko hainbat sormen-jarduketa 2013-2014ko estatistikan gehitzean, ikusten da enpresa-ehunaren datuak sendotu egiten direla. Alde batetik, 2013an aintzat hartu ziren estreinakoz 5.273 enpresa, arkitektura-, publizitate-, bideojoko- eta itzulpen- eta interpretazio-lanetan aritzen direnak.

Sektorearen bilakaera positiboa da bai kultura-arloko enpresei bai sormen-arloko dagokienez, ugaritu egin baitira aztertu den azken aldian, 2013tik 2016ra artekoan: kultura-arloko enpresak % 1,9 ugaritu dira eta sormen-arlokoak % 5,1.

7. irudia. Kultura- eta sormen-arloko enpresa-ehunaren bilakaera. 2013-2016




Iturria: Jarduera Ekonomikoen Direktoria, EUSTAT.

8. irudia. Kultura- eta sormen-arloko enpresen oinarrizko adierazleen bilakaera 2013-2016

	2013	2014	2015	2016
EAEko enpresen kopurua guztira (sektore oro)	157.405	155.306	155.121	154.687
Kultura eta sormen-arloko enpresen kopurua guztira	10.654	10.586	10.955	11.022
Kultura-arloko enpresen ehunekoa EAEko enpresa guztiekiko	% 6,8	% 6,8	% 7,1	% 7,1
Kultura-arloko enpresen ratioa 100.000 biztanleko	486,7	483,0	500,4	503,4
Kultura- eta sormen-arloko establezimendu/enpresa ratioa	1,04	1,04	0,97	0,98

Iturria: Jarduera Ekonomikoen Direktoria, EUSTAT.



3. KSIEN HEDAPENA

Sormen-jarduera berriak, kultura-arloa indarberitzen ari dira


2013-2014 aldian bezala, kultura-arloko enpresen azterketak hainbat sormen-jarduera hartu ditu kontuan, orain arte erabilitako ikuspuntua zabalduz. 2015-2016 aldian, ikuspegi hori hedatu eta azterketan sormen-jarduera berriak jasotzeko ahalegina egin da.

Horregatik, estatistikaren edizio berri honetan JESN berriak hartu dira aintzat, bai sorkuntzaren arloan, baita kultura-arloan ere. Sormen-arloari dagokionez, modarekin eta hizkuntza-industriekin zerikusia duten jarduerak berriak hartu dira kontuan (JESN-2009: 1320, 1330, 1392, 1399, 1411, 1412, 1413, 1414, 1420, 1512, 1520, 3212, 3213, 8559); eta kultura-arloan, ikerkuntza kulturalarekin zerikusia dutenak jaso dira (JESN-2009: 7219, 7220, 7990, 9329).

JESN berriak barneratu ondorengo sektore bietako datuak hausnartuz, agerikoa da sormen-enpresak direla hazkunde handia agertzen dutenak; hizkuntza-prestakuntzako zentroak aintzat hartu izana da horren zergatia hein handi batean. Sormen-arloan agertzen diren 3.000 enpresa berrien % 80 baino gehiago, hizkuntza-irakaskuntzan diharduten enpresak dira.


Kultura-arloko enpresek EAEko enpresen multzoan duten pisua bere horretan geratu da. Kultura- eta sormen-arloko jarduerak berriak aintzat hartzen direla-eta, sektoreko enpresen garrantzia handitu egin da 2015eko % 9,8tik 2016ko % 10,0ra.

9. irudia. KSIen sektoreko enpresa-ehuna 2013-2016




Iturria: Jarduera Ekonomikoen Direktoria, EUSTAT.

10. irudia. Kultura- eta sormen-enpresen ehunekoa EAEko enpresen guztizkoarekiko 2013-2016



Iturria: Jarduera Ekonomikoen Direktoria, EUSTAT.



11. irudia. KSlen sektoreko enpresen oinarrizko adierazleen bilakaera 2013-2016

	2013	2014	2015	2016
Kultura-arloko enpresen kopurua guztira	10.654	10.586	15.177	15.437
Kultura-arloko enpresen ehunekoa EAEko enpresa guztiekiko	% 6,8	% 6,8	% 9,8	% 10,0
Kultura- eta sormen-arloko establezimendu/enpresa ratioa	1,04	1,04	1,04	1,04

Iturria: Jarduera Ekonomikoen Direktorioa, EUSTAT.


Kultura-arloaren analisia hedatuta handitu da enpresen ratioa 100.000 biztanleko. 2015ean sektoreko enpresen guztizko ratioa 693,2 enpresakoa zen 100.000 biztanleko; 2016an, % 1,7 egin dugora, 705 enpresa 100.000 biztanleko izatera iritsiz. Hazkundera lurralde osoan jazotzen da, baina Gipuzkoan hazi da gehien: 2015 eta 2016 artean % 2,5 handitu zen, EAEko gainerako lurraldeetan baino gehiago, alegia.

12. irudia. KSlen sektoreko enpresen ratioa 100.000 biztanleko. Lurralde historikoaren arabera bilakaera 2013-2016


	2013	2014	2015	2016
Araba	418,7	409,4	591,7	601,3
Bizkaia	471,5	473,5	674,3	682,1
Gipuzkoa	541,8	531,5	769,5	788,5
Guztira	486,7	483,0	693,2	705,0

Iturria: Jarduera Ekonomikoen Direktorioa, EUSTAT.

13. irudia. EKultura- eta sormen-enpresak lurralde historikoaren arabera 2016



Iturria: Jarduera Ekonomikoen Direktorioa, EUSTAT.




Establezimenduen % 80k baino gehiagok 1 eta 2 langile artean dituzte

0 eta 2 enplegatu artean dituzten enpresek osatzen dute gehienbat KSlen sektorea. Joera hori iraunkorra da, baita mikroenpresetan ere (3 eta 9 enplegatu artean dituztenak), % 11 izaten jarraitzen baitute; enpresa txikiak (10-49 enplegatu artekoak) % 4 inguru dira; eta azkenik, enpresa ertain eta handiak sektoreko establezimenduen % 0,5 dira.

14. irudia. Kultura- eta sormen-enpresen bilakaera Lurralde Historikoen arabera.


2013-2016



Iturria: Jarduera Ekonomikoen Direktoria, EUSTAT.

15. irudia. KSlen sektoreko establezimenduak enpleguaren zenbatekoaren arabera.


2013-2016



Iturria: Jarduera Ekonomikoen Direktoria, EUSTAT.

Bizkaian dago sektoreko enpresen erdia


Kultura- eta sormen-enpresak Bizkaian eta Gipuzkoan daude gehienbat. Sormen-enpresen % 51,0 eta kultura-enpresen % 50,3 Bizkaian dago errotuta; Gipuzkoan, % 36,4 eta % 37,0, hurrenez hurren. Araban, sektoreko enpresen % 13 daude, gutxi gora behera.




Enplegu kulturalaren % 40 aritzen da hizkuntzen itzulpen- eta prestakuntza-lanetan eta liburutegi eta ondareko jardueretan

2016an, KSlen sektoreko establezimenduetan 45.365 pertsona ari ziren lanean, eta haien **% 50 baino gehiago lau jarduketa-alorretan** ari ziren: hizkuntzen itzulpen- eta prestakuntza-lanetan (% 23,6); liburutegi-, artxibategi-, museo- eta ondare-jarduketetan (% 17,1); sorkuntza-, arte- eta ikuskizunetako jardueretan (% 9,6) eta arkitekturan (% 8,7).

16.irudia. Kultura- eta sormen-enpresak, jarduera ekonomiko nagusiaren arabera. 2016



Iturria: Jarduera Ekonomikoen Direktorioa, EUSTAT.



Hala ere, KSlen sektoreko enpresen % 50 ez dira jarduera-arlo horietan beroietan aritzen, hain zuzen diseinu-jardueretan (% 23,5), argazkigintzan (% 20,9) eta hizkuntzen itzulpengintzan eta prestakuntzan (% 12,3) aritzen baitira.


Beraz, datuak era zehatzagoan aztertuz gero, ikus liteke sektoreko enpresarik gehienak dituzten jarduera-arloak ez direla betiere langile gehien dituztenak. Hala bada, sormen-arloan azpimarragarria da honakoa:

- Hizkuntzen itzulpen- eta prestakuntza-jarduerak sormen-enpleguaren % 50 baino gehiago hartzen dute; aipagarria da hizkuntza-

presta-kuntzako zentroen kopuru handia (hizkuntzen itzulpen- eta prestakuntza-jardueren guztizkoaren % 91,5). Alor horretako enpresak % 39 dira.


- Arkitektura nabarmentzen da enpresa nahiz enplegu kopuruagatik: sormen-enpresen % 35 dira, eta sormen-enpleguaren % 20.
- Publizitatea da hirugarren eremu azpimarragarria eta orekarik handiena duena enpresen eta enpleguen artean, bietan % 12 inguruko pisua baitu.

17.irudia. Sormen-alorreko enpresak eta enpleguak, jarduera ekonomiko nagusiaren arabera 2015-2016



Iturria: Jarduera Ekonomikoen Direktoria, EUSTAT.


Oharra: bideo-jokoan datuak ez dira kontabilizatu estatistika-sekretuagatik.




Kultura-arloari dagokionez, hainbat jarduera aipa daitezke enpresa eta langile kopuruengatik:

- Sorkuntza-, artegintza- eta ikuskizun-jardueretako enpresak dira presentzia handiena dutenak, kultura-arloko enpresen guztizkoaren % 30 baitira. Hala ere, haiek sortzen duten enplegua nabarmen baxuagoa da, kultura-alorreko enpleguen % 17 baitute.
- Enpleguari dagokionez azpimarragarria da liburutegi-, artxibategi-, museo- eta ondareko jarduerak dituzten enpresen ekarpena, enpleguaren % 31 direlako, horretan diharduten enpresak % 9 bakarrik diren arren.
- Kultura-produktuen merkataritza-enpresak, kultura-arloan garrantzia badute ere (% 17), enpleguaren % 7 sortzen dute.
- Beste jarduera batzuk ere aipagarriak dira eta gainera oreka dago enpresa eta sortzen duten enplegu kopuruaren artean. Hauek dira: zinegintza, bideogintza, irratia, telebista eta musika-edizioa (enpresen % 9, enpleguaren % 11); eta arte grafikoak eta grabatutako euskarrien erreprodukzioa (enpresen % 12 eta enpleguaren % 12).

18. irudia. Kultura-alorreko enpresak eta enpleguak, jarduera ekonomiko nagusiaren arabera 2015-2016






4. KONPARAZIOA BESTE AUTONOMIA-ERKIDEGO BATZUEKIN

Estatu osokoaren aldean, handitu egin da kultura-enpleguaren garrantzia eta mantendu egin da enpresa kopurua

Beste autonomia-erkidego batzuekin alderatuta, kultura-enpresei buruzko EAEko adierazleak mantendu egin dira, eta berriro ere bigarren lekuan jarraitzen dute alderaketan. 2015ean puntu bat murriztu bazen ere kopurua, 2016an berreskuratu egin zen 2014ko maila, eta Estatuko batez bestekoaren gainetik jarraitu zuen.


Biztanleria Aktiboaren Inkestako datuen arabera, EAEko kultura-enpleguak 2016an seigarren postuari eusten dio autonomia-erkidegoen arteko alderaketan. EAEko kultura-enplegua handitu egin da azken bi urteetan, 2014ko 22,7 mila enpleguetatik 2016ko 27,8 milara igaroz (% 22,5 gehiago bi urteren buruan). 2016ko datuetan 2012ko enpleguaren zenbatekoak berreskuratu egin dira (% 1,8 gainera ipiniz).

19. irudia. Kultura-enpresen ehunekoa guztizkoarekiko eta ratioa 100.000 biztanleko. 2016




Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia, EIN.

20. irudia. Enpleguaren bilakaera EAEko kultura-enpresetan (milaka). 2016




Iturria: Biztanleria Aktiboaren Inkesta (BAI), EIN. Urteko batezbestekoak.




Kultura-enpleguak enpleguen guztizkoan duen pisuaren arabera, EAE hirugarren lekuan dago autonomia-erkidegoen arteko alderaketan, % 3,2rekin, Madrilen atzetik (% 5,2) eta Kataluniaren ondoren (% 3,9). Bilakaerari erreparatuz gero, ikus liteke datuak positiboak direla aurreko urteetakoekin erkatuta, kultura-enpleguaren pisua handitu egin baita EAEn, 2012ko datuak (% 3,1) gaituz.

21. irudia. Kultura-enpleguaren ehunekoa guztizkoaren gainean eta kultura-enpresetako enplegua (milakotan). 2016



Iturria: Biztanleria Aktiboaren Inkesta (BAI), EIN. Urteko batezbestekoak.




Kultura-sektorean kontratu gehiago egin dira

2017an, kultura-arloko lanbideetan egindako kontratuak % 48,9 gehitu ziren 2011n egindakoen aldean. Zifren joera positiboa da 2011z geroztik, eta azpimarratzekoa da 2014-2015 aldia, % 22,1 gehitu baitziren kontratuak orduan.

2017an, kultura- eta sormen-industrien sektorean 60.700 kontratu egin ziren, hau da, EAEn egindako kontratu guztien % 6,3. Haietako % 46,9 aisialdi-, kultura- eta kirol-jardueretan egin ziren, eta % 25,1 sormen- eta interpretazio-artisten jardueretan.

23.irudia. Kulturaren eta sormenaren arloetan egindako kontratuen bilakaera (Oinarritzko indizea 100=2011). 2011-2017



Iturria: Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzua. Eusko Jaurlaritza.


Oharra: 2016an eta 2017an ez dira aintzat hartu estatistikaren edizio honetan gehitu diren LSNak.

Kontratu berrien erdiak Bizkaian egindakoak dira


Kontratu berrien % 51,4 Bizkaian egin ziren, % 34,1 Gipuzkoan eta % 14,5 Araban.

Datuak eskualdeka aztertzen badira, ikus liteke Bizkaian kontratuen % 88,1 Bilbo Handian egin direla; Gipuzkoan, % 70,4 Donostialdean; eta Araban, % 90,1 Arabako Lautadan.

24.irudia. Egindako kontratu-kopurua, lantokia dagoen lurralde historikoaren arabera. 2017



Iturria: Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzua. Eusko Jaurlaritza.



Kontratuen % 55,34 urte baino gutxiagokoei egin zaizkie

Adinari dagokionez, 34 urte baino gutxiagokoen enplegu-geruza nabarmentzen da, sektoreko kontratuen % 55,0 beretzen baitituzte; ondoren, 34 eta 49 urte artekoena dator, % 32,5; eta azkenik, 50 urtetik gorakoena, % 12,5. Lanbidearen arabera aztertzen badira datuak, ikus liteke arlorik gazteenak direla aisialdi-, kultura- eta kirol-jardueretakoak, diseinua (% 73,7 34 urte baino gutxiago dutenak), arkitektura (% 62), publizitatea (% 58,2), idazleak eta kazetariak (% 58,4) eta bideojokoak (% 56,1). Eta langile adintsuenak dituzten sektoreak dira moda (50 urte edo gehiagokoak % 33,7 dira), sorkuntza- eta interpretazio-artistak (% 25,1) eta artisauak (% 25,1).


la kontratu guztiak aldi baterakoak dira

2017an egin diren kontratuen % 99,6 aldi baterakoak izan dira; lanbide guztiek dute behin-behinekotasun handia, ez badira software eta multimediako analista eta diseinatzaileenak (kontratuen % 51,5 da mugagabea horietan), arkitekto eta hirigileenak (% 26,6) eta moda-langileenak (% 16,7).


Aldi baterako lan-kontratuen % 85ek zazpi egun baino gutxiagoko iraunaldia dute, eta azpimarragarria da egun bat edo gutxiagokoen zenbatekoa (% 65,4).

Azterketan sormen-arloarekin zerikusia duten LSN berriak sartu izanak berekin dakar sektorean egindako kontratuen kopuruan gorabeherak azaltzea. Enpresa handien garrantzia gutxitu egin da eta mikroenpresak (3-9 enplegatu artekoak) eta enpresa txikiak (10-49 enplegatu artekoak) ugartu dira. Aztertu den azken aldiaren, enpresen % 31,2 enpresa ertain eta handiak ziren (50 langile baino gehiago dituztenetan), eta % 31,2, aldiz, 10 eta 49 langile artean zituzten enpresak.


25. irudia. Kultura-arloko lanbideetan egindako aldi baterako kontratuak, iraupenaren arabera. 2013-2017



Iturria: Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzua. Eusko Jaurlaritza.




26. irudia. Kultura-arloko lanbideetan egindako kontratuak, enpresa kontratatzailearen tamainaren arabera. 2013-2017



Iturria: Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzua. Eusko Jaurlaritza.

27. irudia. Kultura- eta sormen-alorrean erregistraturiko lan-eskarien bilakaera (oinarizko indizea 100=2011). 2011-2017



Iturria: Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzua. Eusko Jaurlaritza.

Oharra: 2016an eta 2017an ez dira aintzat hartu estatistikaren edizio honetan gehitu diren LSNak.

Gutxitu egin dira KSlekin zerikusia duten lanbideen lan-eskariak

2017an, kulturaren eta sormenaren arloekin zerikusia duten lanbideen lan-eskaerak % 7,2 gutxitu dira 2011rekin alderatuta. 2011tik 2013rako joera positiboa izan zen; 2013tik aurrera hasi zen gutxitzen eskaria, EAEko eskari guztien dinamika orokorraren ildo berean.

Estatistikaren edizio honetan aintzat hartu dira sormen-arloarekin zerikusia duten jarduera berriak, 2016ko eta 2017ko zifrak handitzea ekarriz. Kultura- eta sormen-industriaren sektoreak 8.390 lan-eskaera erregistratu zituen 2017an, EAEko eskari osoaren % 6,6.


Haietatik, % 40,2 kultura-arloan egin ziren, eta % 59,8 sormen-arloan.

Aipagarriak dira hizkuntza-industriekin zerikusia duten lan-eskariak (% 18,7), diseinatzaileenak (% 17,0) eta aisialdi-, kultura- eta kirol-jardueretakoak (% 13,4).

Egindako lan-eskarien % 50 baino gehiago emakumeenak dira

2017an egin diren lan-eskarien % 57,5 emakumeek egin dituzte; azpimarragarriak dira modaren inguruko jarduerak (moda-lanetan jarduteko eskaeren % 92,4 emakumeek egin dituzte), artxibozain, liburuzain, kontserbatzaile eta gisakoak (% 75,2), hizkuntza-industrietan enplegua eskatzen dutenak (% 68,7) eta publizitatekoak (% 68,5).

28. irudia. Emakumeek egindako lan-eskariak, eskatutako lanbidearen arabera. 2017



Iturria: Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzua. Eusko Jaurlaritza.


34-49 urte arteko eskatzaileek egin dituzte lan-eskaeren % 40

2017an, 34 eta 49 urte arteko pertsonak egin dituzte aurkeztu diren lan-eskaeren % 39,7; 34 urte baino gutxiagoko pertsonak, % 30,9; eta 50 urte baino gehiagokoak % 29,3. Halaz eta guztiz ere, esan behar da 34 urte baino gutxiagokoak egin dituztela analista eta software- eta multimedia-diseinatzaileen lan-eskarien % 50,6; 34 eta 49 urte artekoak, diseinu-eskarien % 50,4 eta bideojokoetako lanbide-eskarien % 50,0; eta, azkenik, 50 urte edo gehiagokoak, artisautzako eskarien % 71,2, arte grafikoetako ofizial eta langileen % 74,4 eta moda-lanbideetarako % 62,2.


Bizkaian egin dira KSletako lan-eskarien % 55,4

Nola sormen-alorrean hala kultura-alorrean, lan eskaeren % 50 baino gehiago Bizkaian egin da. Gipuzkoan, eskarien % 30 inguru egiten da, eta Araban % 12 eta % 14 artean.

29. irudia. KSletan egindako lan-eskariak, lurralde historikoen arabera. 2017




Iturria: Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzua. Eusko Jaurlaritza.



KSletako lan-eskarien hamarretik zazpi 3 urte baino gutxiagoko esperientzia dutenek egiten dituzte

2017an, sektorean lan egiteko eskarien % 39,0 esperientziarik gabeko eskatzaileek egin dituzte; eskarien % 18,4, urtebete baino gutxiagoko esperientzia dutenek; eta % 11,7, urte bat eta hiru arteko lanbide-esperientzia zutenek. Aldiz, eskarien % 17,1 bost urte baino gehiagoko esperientzia zutenek egindakoa zen.

30. irudia. Kultura-arloko lanbideetan erregistratutako aldi baterako kontratuak, esperientziaren arabera. 2016-2017



Iturria: Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzua. Eusko Jaurlaritzia.



www.euskadi.eus/kulturabehatokia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA